

**HIRITARREI GALDEKETA:
HIRIAREN GARAPENAREN FAKTORE NEGATIBO ETA POSITIBOAK.
INBERTSIO LEHENTASUNAK**



Plan Estrategikoa
Donostia - San Sebastián

**HIRITARREI INKESTA: HIRIAREN GARAPENARI
DAGOZKION FAKTORE NEGATIBO ETA POSITIBOAK.
INBERTSIO LEHENTASUNAK**

2002KO AZAROA

AURKIBIDEA

Orrialdea

1. SARRERA.....	iERROR!MARCADOR NO DEFINIDO.
2. HIRIAREN GARAPENEAN ERAGIN NEGABITOA DUTEN FAKTOREAK.....	3
2.1. AURKIBIDE SINTETIKOA.....	4
2.2. FACTORES MAS NEGATIVOS	5
3. FACTORES CON INCIDENCIA POSITIVA EN EL DESARROLLO DE LA CIUDAD	6
3.1. ÍNDICE SINTÉTICO	7
3.2. FAKTORE POSITIBOENAK.....	8
4. INBERTSIO LEHENTASUNAK	9
4.1. AURKIBIDE SINTETIKOA.....	10
4.2. LEHENTASUNA DUTEN INBERTSIO ALORRAK	11

1. SARRERA

Dokumentu honek, 2002ko uztailean, donostiarrei egindako inkesta baten emaitzak aztertzen ditu sintetizatuta.

Posta bidez, 70.000 inkesta bidali ziren hiriko etxeetara, eta 2.706 erantzun anonimo jaso ziren, alegia, bidalitako galdetegien %4. Hauetako zenbait erantzunek ez zuten balio izan, beraz, aztertzeko erantzunak 2.269 izan ziren.

Inkesta hiru ataletan egituratu zen:

- Datozen hamar urteotan, Hiriaren garapenean, okerren eragingo duten faktoreak.
- Datozen hamar urteotan, Hiriaren garapenean, hobekien eragingo duten faktoreak.
- Datozen urteetarako Hiriaren inbertsio lehentasunak.

Atal bakoitzerako bederatzi erantzun proposatu ziren, eta hauek 1etik 9ra bitarteko garrantzia/lehentasun ordenean sailkatu behar ziren.

Jarraian, inkestaren emaitza nagusiak aurkeztuko dira, aipatutako ataletan ordenatuta.

2. HIRIAREN GARAPENEAN ERAGIN NEGATIBOA DUTEN FAKTOREAK

Proposatutako bederatzi faktoreak honokoak dira:

- Indarkeria existitzea, eta honek alor desberdinetan dituen eragin negatiboak.
- Lurraren garestitasuna bai etxebizitzan lurrari, bai enpresa berriak jartzeari dagokionez.
- Enplegu sorkuntza eskasa.
- Trafikoak sortzen duen ingurugiro hondatzea, eta auto pilaketa.
- Integratu gabeko inmigrazioa (egoera irregularra, lan baldintza ez bidezkoak, etab.)
- Hiriaren zahartze prozesua (gazteen emigrazioa, etab.)
- Beste hirien dinamismo eta lehiakortasun handiagoa.
- Nahikoa ez den beste erakundeen babesa, hiriaren proiektuentzat
- Azpiegitura gabeziak (aireportua, portua, Abiadura Handiko Trena)

Jarraian egiten den azterketan bi alderdi gehitzen dira:

- Lehenengo, adierazle sintetiko bat kalkulatzeko da, erantzunak haztatuz. Alegia, 1etik (gutxien baloratutako faktorea) 9ra (gehien baloratutako faktorea) baloratzen da faktoreetako bat, faktore bakoitzarentzat puntuazio bat lortuz. Adibide gisa, pertsona guztiek eragin negatiboena duena faktore bera baloratu izan balute, puntuazioa 9 litzateke, eta kontrara gertatu izan balitz 1.
- Jarraian, garrantzia handiena ematen zain faktorea aztertzen da, portzentaia azterketa bat eginez, bai eta garrantzia ordenaren arabera lehen hiru tokietan aipatu diren faktoreak ere.

2.1. AURKIBIDE SINTETIKOA

Modu negatiboenean eragiten duten hiru faktoreak, besteeikiko distantzia nabarmenez (6 eta 7 bitarteko puntuazioa):

- Etxebizitza eta enpresa berriak jartzeko lurraren prezioaren garestitasuna (6,98ko puntuazioa).
- Indarkeria egotea, eta alor desberdinetan dituen eragin negatiboak (6,92)
- Enplegu sorkuntza eskasa (6,37)

Jarraian, erdiko puntuazio batekin (4-5), honoko lau faktoreak kokatzen dira:


- Hiriaren zahartze prozesua (4,97)
- Trafikoak sortutako ingurugiro hondatzea eta auto pilaketa (4,94)
- Integratu gabeko inmigrazioa (4,34)
- Azpiegitura gabeziak (4,17)

Azkenik, puntuazio baxu batekin (4tik beherakoa), bi faktore:

- Beste erakundeek hiriaren proiektuei ematen dieten babes ez nahikoa (3,78)
- Beste hiriren dinamismo handiagoa eta hauen lehiakortasuna (3,20)

2.2. Hiriaren garapenari dagozkion faktore negatiboak. Aurkibide sintetikoa

**HIRITARREI GALDEKETA:
HIRIAREN GARAPENAREN FAKTORE NEGATIBO ETA POSITIBOAK.
INBERTSIO LEHENTASUNAK**



Iturria: Donostiako Plan Estrategikoa. Hiritarrei Inkesta.

2.2. FAKTORE NEGATIBOAK

Donostiar hiritarren %47aren ustez, indarkeria eta honen ondorioak, hiriaren garapenean eragin negatiboena duten faktoreak dira. Distantzia nabarmenean, galdetutako pertsonen %21ek lehen tokian aipatu duten arren, lurraren prezioaren garestitasunean dago, eta hirugarren tokian, enplegu sorkuntza eskasa aipatzen da, erantzunen %12rekin.

Beraz, donostiarren %80k aipatu hiru faktoreetako bat aipatzen du hiriaren garapenerako faktore negatiboena bezala.

HIRITARREI GALDEKETA:
HIRIAREN GARAPENAREN FAKTORE NEGATIBO ETA POSITIBOAK.
INBERTSIO LEHENTASUNAK



2. Error! Argumento de modificador desconocido..Koadroa Faktore negatiboak (lehen hiru postuetan aipatuak)

(erantzunen % portzentaiak)

	1. tokian	2. tokian	3. tokian	GUZTIRA
Indarkeria existitzea, eta honek alor desberdinetan dituen eragin negatiboak	46,6	7,7	7,9	62,2
Bai etxebizitza bai enpresa berriak jartzeko lurraren garestitasuna	21,0	27,6	17,5	66,1
Enplegu sorkuntza eskasa	12,2	23,2	19,4	54,8
Trafikoak sortzen duen ingurugiro hondatzea, eta auto pilaketa	6,7	7,4	13,1	27,2
Hiriaren zahartze prozesua (gazteen emigrazioa, etab.)	3,6	10,9	10,9	25,4
Integratu gabeko inmigrazioa (egoera irregularra, lan baldintza ez bidezkoak, etab.)	3,4	8,4	10,4	22,2
Azpiegitura gabeziak (aireportua, kirol portua, Abiadura Handiko Trena)	3,0	8,4	9,9	21,3
Nahikoa ez den beste erakundeen babes, hiriaren proiektuentzat	2,1	3,5	6,0	11,6
Beste hirien dinamismo eta lehiakortasun handiagoa	1,4	2,9	4,9	9,2

Iturria: Donostiaren Plan Estrategikoa. Hiritarrei inkesta.

Bederatzi proposamenen artean, lehen hiru tokietan aipatu diren faktoreak gehituz azterketa zabaltzen bada, orden aldaketa bat gertatzen da. Hala, %66k lurraren garestitasuna adierazten du, %62k indarkeria egotea, eta %55ek enplegu beharra.

3. HIRIAREN GARAPENEAN ERAGIN BAIKORRA DUTEN FAKTOREAK

Proposatutako bederatzi faktoreak honokoak izan ziren:

- Enpresa berriak sortzea, eta enplegu eskaintza handitzea
- Turismo eskaintza bultzatu eta modernizatzea
- Gazteentzako babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea
- Teknologia berriak ezartzea, eta azaleratzen ari diren sektoreen hazkundera
- Komunikazio eta azpiegiturak hobetzea (errepideak, AHT, Euskotren, geltoki intermodala)
- Unibertsitate ikastetxe, lanbide heziketa eta ikerketa ikastetxeak zabaltzea eta garatzea.
- Kultur ekipamendu berriak (Tabacalera, San Telmo Museoa, Victoria Eugenia Antzokia, Euskal Filmatagia), eta kultur eskaintza zabaltzea
- Ingurugiro babesa, eta parke eta guner berde gehiago jartzea
- Inmigrazioa (integratutako kultur aniztasunaren faktore gisa, enplegu beharrak betetzen dituen, etab.)

Jarraian, inkestan lortutako emaitzak aztertuko dira, aurreko atalean aipatutako irizpide berekin.

3.1. AURKIBIDE SINTETIKOA

Besteen gainera gailentzen den faktore bat, hirian duen garapen positiboagati: enpresa berriak sortzea, eta enplegu eskaintza handitzea da, 7,24ko puntuazioarekin (gehienezko puntuazioa 9 eta gutxienezkoa 1).

Puntuazio hau, proposatutako faktore positibo eta negatibo guztien artean lortutako handiena da (guztira hamazortzi), beraz, honen inguruan dago adostasun maila altuena.

Jarraian, gazteentzako babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzearen beharra dago, 6,06ko puntuazioarekin.

5 eta 6 arteko (puntuazio ertain-altua) lortzen duten beste hiru faktoreak:

- Komunikazio eta azpiegiturak hobetzea (5,56).
- Teknologia berriak ezartzea, eta azaleratzen ari diren sektoreen hazkundera (5,33)
- Unibertsitate, lanbide heziketa eta ikerketa zentroak garatu eta zabaltzea (5,07)


Hiru faktore hauek garapen ekonomikoa eta aberastasun eta enplegu sorkuntzarekin erlazionatuen dauden lehentasuna indartzen dute.

Azkenik, 5etik beherako puntuazio batekin, iradokitako beste lau faktoreak kokatzen dira. Honakoak dira:

- Ingurugiroa babestea, eta parke eta berdegune gehiago jartzea (4,65)
- Turismo eskaintza bultzatu eta modernizatzea (4,64)
- Kultur ekipamendu berriak eta kultur eskaintza zabaltzea (4,20)
- Inmigrazioa eta bere alderdi positiboak (2,92)

3.1. Error! Argumento de modificador desconocido.. Grafikoa Hiriaren garapenaren inguruko faktore positiboak. Aurkibide sintetikoa

**HIRITARREI GALDEKETA:
HIRIAREN GARAPENAREN FAKTORE NEGATIBO ETA POSITIBOAK.
INBERTSIO LEHENTASUNAK**



Iturria: Donostiaren Plan Estrategikoa. Hiritarrei inkesta.

3.2. FAKTORE POSITIBOAK

Donostiarrek egindako sailkapenean, hiritarren %35ek datozen urteetarako Donostiaren garapenerako faktore onuragarrien gisa, enpresa berriak eta enplegua sortzea aipatzen ditu.

Proposatutako bederatzien artean, positiboen gisa jotako bigarren faktorea, kauen %21ean aipatutako sustapen ofizialeko etxebizitzak eraikitzearen ingurukoa da.

Era berean, hiriaren garapenari dagokionez faktore erabakior gisa, hiritarren %10 baino gehiagok aipatutako beste bi faktore adierazi ditu. Komunikazio eta azpiegiturak hobetzea (%12), eta ingurugiroa babestu, eta berdeguneak sortzea (%10).

HIRITARREI GALDEKETA:
HIRIAREN GARAPENAREN FAKTORE NEGATIBO ETA POSITIBOAK.
INBERTSIO LEHENTASUNAK



3. Error! Argumento de modificador desconocido. Koadroa. Faktore positiboak (lehen hiru postuetan aipatutakoak)

(erantzunen % portzentaiak)

	1.tokian	2.tokian	3.tokian	GUZTIRA
Enpresa berriak sortzea, eta enplegu eskaintza handitzea	35,3	22,0	11,2	68,5
Gazteentzako babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea	21,0	19,9	11,9	52,8
Komunikazio eta azpiegiturak hobetzea (errepideak, AHT, Euskotren, geltoki intermodala)	11,8	11,7	14,6	38,1
Ingurugiroa babestea, eta parke eta berdegune gehiago jartzea	10,2	6,9	8,5	25,6
Turismo eskaintza bultzatu eta modernizatzea	6,3	8,5	12,2	27,0
Teknologia berriak ezartzea, eta azaleratzen ari diren sektoreen hazkundea	5,6	12,6	15,4	33,6
Unibertsitate, lanbide heziketa, eta ikerketa zentroyen zabaltze eta garapena	4,1	8,3	13,1	25,5
Kultur ekipamendu berriak (Tabacalera, San Telmo Museoa, Victoria Eugenia Antzokia, Euskal Filmategia), eta kultur eskaintzaren zabaltzea	3,2	6,2	8,5	17,9
Inmigrazioa (integratutako kultur aniztasun faktore gisa, enplegu beharrak betetzen dituen, etab.)	2,4	3,9	4,6	10,9

Iturria: Donostiako Plan Estrategikoa. Hiritarrei inkesta.

Bestalde, lehen hiru postuetan gehien aipatu diren faktoreak hauek hiriaren dinamismoan duten eraginkortasunetik aztertzen badira, lehen lau tokietan hauek azaltzen dira:

- Enpresa eta enplegu sorkuntza hiritarren %69k aipatzen du.
- Gazteentzat BOEak eraikitzea %53k.
- Komunikazio eta azpiegiturak hobetzea %38k.
- Teknologia berriak ezartzea, eta sektore berrien hazkundea %34k.

4. INBERTSIO LEHENTASUNAK

Galderen azken blokea, datozen urteetarako hiriaren inbertsio lehentasunen ingurukoa da. Bederatzi inbertsio gune proposatu ziren, hauen lehentasunaren arabera ordenatzeko.

Proposatutako bederatzi inbertsio ekintzak honokoak dira:

- Babes ofizialeko etxebizitzaren aldeko ekintza Actuaciones diversificadas a favor de la vivienda de protección oficial
- Proiektu handietan inbertsioak egitea (kultur, turismo, eta abarri dagokienez), inguruko hirietan lehiakorragoak izateko.
- Udalerrian enpresak jartzea eta sortzea lortzeko zenbait ekimen

- Berdeguneak, hiri paisaia, eta auzoetako gune publikoak handitu eta hobetzea.
- Garraio publikoen eskaintza bultzatu eta hobetzea (autobusak, tranbia arinak, topoa, etab.)
- Helduenentzako zerbitzu eta arretak gehitzea
- Teknologia berriak zabaltzearekin erlazionatutako enpresa ekimen eta zerbitzuei babesa ematea.
- Euskararen erabilera eta ezartzea bultzatzea
- Udal arreta eta zerbitzuak modernizatzea

4.1. AURKIBIDE SINTETIKOA

Ondorengo ataletan aztertutako faktore negatibo/positiboekin batera, galdetegia bidali zuten pertsonen datozen urteetarako hiriko inbertsio lehentasun nagusia, aurkibide sintetikoan oinarrituta, enpresak sortu eta ezartzeari zuzendutako ekimen eta ekintzak dira, 6,41eko puntuazioarekin.

Jarraian, eta kopuru distantzia gutxirekin, dibertsifikatutako ekintzak kokatzen dira, babes ofizialeko etxebizitzaren alde, 6,25eko puntuazioarekin.

Hirugarren tokian, garraio publikoaren bultzada eta hobetzea aipatzen da, 5,86ko puntuazioarekin.


Beste lau inbertsio ekintzek osatzen dute lehentasun ertaineko taldea, 5 inguruan kokatzen den puntuazio batekin. Hauek honokoak dira:

- Berdeguneak, hiri paisaia, eta auzoetako gune publikoak handitu eta hobetzea (5,39)
- Helduenentzako zerbitzu eta arretak gehitzea (5,04)
- Enpresa ekimen eta teknologia berrien zabaltzearekin erlazionatutako zerbitzuei babesa ematea (5,04)
- Proiektu handietako inbertsioak (kultura, turismo, eta abarri dagozkienak), inguruko hiriekin lehiakorragoak izateko (4,70)

Azkenik, azken postuetan, beste bi lehentasunak daude:

- Euskararen erabilera eta ezarpena bultzatzea (3,40)
- Arreta eta udal zerbitzuak hobetzea (3,39)

4.1. Hiriaren inbertsio lehentasunak. Aurkibide Sintetikoa



Iturria: Donostiako Plan Estrategikoa. Hiritarrei inkesta.

4.2. LEHENTASUNA DUTEN INBERTSIO ALORRAK

Proposatutako inbertsio bederatzi ekintzak aztertuz, eta hauek lehentasunetan duten tokia ikusita, babes ofizialari dagozkion ekintzak inkesten %30k lehen tokian jartzen dutela agerian geratzen da.

%19ren ustez, enpresa sustapen inbertsioak lehentasun nagusia dira, eta %10en ustez berdegune eta gunek hobetzea.

Beste inbertsio ekintzak lehen tokian jartzen dira %9 eta %7 arteko portzentaian, udal administrazioa modernizatzea salbu, hau azken tokian kokatzen baita.

HIRITARREI GALDEKETA:
HIRIAREN GARAPENAREN FAKTORE NEGATIBO ETA POSITIBOAK.
INBERTSIO LEHENTASUNAK



**4. Error! Argumento de modificador desconocido..Koadroa Inbertsio
 Lehentasunak (lehen hiru postuetan aipatutakoak)**

(erantzunen % portzentaiak)

	1. tokian	2. tokian	3. tokian	GUZTIRA
Babes ofizialeko etxebizitzaren aldeko dibertsifikatutako ekintzak	29,9	12,7	11,9	54,5
Udalerrian enpresak ezarri eta sortzea lortze ekimen zenbait	19,0	22,3	13,6	54,9
Berdegunea, hiri paisaia, eta auzoetako gune publikoak handitu eta hobetzea	10,1	10,1	13,6	33,8
Proiektu handietan inbertsioak egitea (kultura, turismo, eta abarrei dagozkienak), inguruko hiriekin lehiakorragoak izateko	8,7	9,8	10,9	29,4
Garraio publikoaren eskaintza bultzatu eta hobetzea (autobusak, tranbia arina, topoa, etab.)	8,5	13,6	15,7	37,8
Euskararen erabilera eta ezartzea bultzatzea	7,7	5,7	6,7	20,1
Helduenentzako zerbitzu eta arreta gehitzea	7,1	9,0	12,8	28,9
Enpresa ekimen eta teknologia berrien zabalpenarekin erlazionatutako zerbitzuak bultzatzea	6,5	12,3	9,7	28,5
Arreta eta udal zerbitzuak modernizatzea	2,5	4,5	5,2	12,2

Iturria: Donostiako Plan Estrategikoa. Hiritarrei inkesta.

Azterketa, lehen hiru postu edo tokietan aipatutako inbertsio alorretara zabalduz, zenbait aldaketa gertatzen dira, proposatutako zenbait inbertsio kontuan hartzean artean dauden desberdintasunak islatuz.

Modu honetan, lehen tokian, enpresak sortu eta ezartzearekin erlazionatutako inbertsioak daude (galderak erantzun dituzten pertsonen %55k lehen hiru postuetakoren batean aipatu dute). Portzentaia berean (4 hamarrenetara), babes ofizialeko etxebizitzaren inguruko ekintzak daude.

Jarraian, pertsonen %38k, lehen hiru aurreikuspenen artean kokatzen du garraio publikoaren hobetzea, eta %34k berdegune, hiri paisaia, eta gune publikoak gehitu eta hobetzea.

Beste bost ekintzek %29 eta %12 arteko portzentaia lortzen dute (ikus honekin doan koadroa) lehen hiru tokietan aipatutako lehentasunak aipatzean.